

Mario Fernandez. Ingurumenaz eta krisiaz kezkatutako medikua



Bilbo, 1951. Medikuntzan lizentziatua, osasun-zerbitzuen ikuskatzaile darama 35 urte inguru. Gutxi gorabehera denbora bera egin du osasun-eskubidearen aldeko Osalde elkartearen; haren sortzaileetakoa da, izan ere. Lan-osasunaz eta ingurumenaz arduratzen da Mario Fernandez, eta bigarrenaren izan dugu hizpide nagusia. Noraino gaixotzen gaitu inguruak?

“Osasungintza kudeatzen dutenek beti dute herritarrak lasaitzeko helburua”



Unai Brea

@unaibrea

ARGAZKIAK: IÑIGO AZKONA

Aitzindariak

“1981ean Kubara joan ginen zenbait kide, OMEren eskutik master bat egitera, eta hango osasungintzaz asko ikasi genuen. Osasun sistema eraldatzeko premia sumatu genuen, ordura arte bi orduan 60 gaixo ozta-ozta ikusi eta errezetak ematen zituzten medikuak baitziren sistemaren ardatza. Kuban ikasitakotik planteatu zen gaixoaren historia eduki beharra, osasun-zerbitzuetan langile guztiak koordinatuta aritzeko beharra... Zorionez eredu hori da orain Espainiako Estatuan indarrean duguna”.

Gero eta gaixogo gaude?

Ez nuke argi eta garbi hala esango, baina badira alarmak. Agerikoa da gero eta kutsadura gehiago dagoela: plastikoak; hondakinen errausketa –irtenbidetzat aurkezten digutena, guztiz kontrakoa denean–; naturan existitzen ez ziren eta gizakiak sintetizatu dituen produktu kimiko asko, euretako asko kaltegarriak eta beste asko ondorio ezezagunekoak... “Ingurua kutsatzen ari gara eta horrek gaixotu egingo gaitu” esaten baduzu, norbaitek erantzuten du, iritzi publikoa lasaitzearren, inoiz baino hobeto gaudela. Eta egia da. EAEn Europako batez besteko bizi-itxaropenik handienetakoa dago, eta osasun sistema ona daukagu, baina hiltzeko eta gaixotzeko moduak aldatuz doaz. Ikerketa epidemiologikoez diote minbiziaren dela bizitza-urte potentzial gehien kentzen digun faktorea. Esaten da minbiziaren gorakada urte gehiago bizitzaren ondorioa dela, baina datuak aztertuta ikusten da gaitzak eragin handia duela tarteko adinetan ere.

Zibilizazioaren gaixotasuna da minbizia? Seguruenik beti egon da minbizia. Tu-

more bat ez da zelulen hazkunde desordenatua baizik. Haatik, gure sistema immunitarioak atzeman ditzake kaltegarri bihurtzen hasten diren zelulak, eta haien aurka borrokatu. Arazoa da inguruaren kutsadurak immunitate-sistemari eragiten diola, uste dut horixe dela sortzen ari garen jendarte kontsumozale eta kutsatu honen ezaugarri bat.

Esan duzu norbaitek lasaitzen gaituela, inoiz baino hobeto gaudela esanez. Nor da “norbaitek” hori?

Osasun agintari guztiak, alderdi batekoak zein besteak. Osasun zerbitzu publikoak kudeatzen dituztenek beti dute herritarrak lasaitzeko helburua. “Ez da ezer gertatzen”, “ez da ezer frogatu”... Garai batean ere frogatu gabe zegoen tabakoak minbiziaren eragiten duenik.

Herritar askok zientziari begiratzen dioten erantzun bila. Baina zientzialariak ez datoz beti bat, batzuek gauza bat diote eta beste batzuek aurkakoa.

Ez du inorri buruz gaizki hitz egin nahi, baina interes ekonomiko handiak daude berrikuntza zientifikoen, sendagaien,



"Tamalez, medikuntza eta erizaintza fakultateetan ez dira irakasten ez ingurumen gaiak, ez lan-osasuna... Ezezagutza dago medikuengan. Ingurumena bazterrean geratzen da".

produktu kimikoen eta abarren inguruan. Zer esanik ez transgenikoen eta pestiziden inguruan. Eta interes horiek esaten nabilen hau ezkutarazten dute, behar beste ez ikertzea eragiten dute.

Orain deitu behar dizut magufo eta konspiranoiko? Eta medikua izanda gainera!

(Barre) Bai, hori guztia. Medikua batek esan ditzake gauza hauek eta beste mediku batzuek kontrakoa esango dute. Nik eztabaidatu egin dut transgenikoez, produktu kimiko sintetikoiez, Zabalgarbiko erraustegiaz eta abarrez. Baina zorritzarekin gutxi eztabaidatzen da.

Transgenikoak aipatu dituzu. Osasunari kalte egiten diotela uste duzu?

Gaiak ikertzen ari da oraindik, eta beti ikertu beharko da, haien efektu guztiak dagoeneko ezagutzen ditugula esango bagenu nagusikeriaz jokatzeko ariko ginateke; tira, batzuek hala jokatzeko dute

jada. Gutxi ikertu ahal izan da gaiak, transgenikoekin lan egiten duten konpainiek eurek beren produktuekin azterketak egitea eragotzi dutelako.

Zer pentsatzen dute mediku gehienek esaten ari zaren gauza hauez?

Tamalez, medikuntza eta erizaintza fakultateetan ez dira irakasten, ez ingurumen gaiak, ez lan-osasuna. Ikasketak oso aspaldikoak dira, eta ezezagutza dago bai nire belaunaldiko medikuengan bai gazteengan. Ingurumena bazterrean geratzen da.

Nik leku askotan irakurri dudaren arabera ingurumena ez da arazoa ordea. Gaitz batzuk goraka doaz, luzeago bizi garelako ez ezik, ez dugulako geure burua behar bezala zaintzen.

Hori esatea iraingarria da, biktimari errua botatzea. Hark du gertatzen zaiotzen erantzukizuna erre egiten duelako, ez duelako ariketa fisiko egiten, koipe gehiegi jaten duelako... Ingurumena ez da faktoretzat hartzen. Hala ere, dena esatera, antolakuntza sozialak eragiten du pertsona askok beren burua

ez zaintzea. Argi dago jende pobreenak ez duela aukerarik bizimodu osasungarriago bat antolatzeke, askotan egunero bizirautea beste kezkarik ez du.

Orduan, krisia da osasunean eragina duen beste faktore bat?

Zalantzarik gabe. Uneotan erabakigarria da. Adibide gordin bat ipiniko dizut: Sobietar Batasuna desagertu zenean krisi sozioekonomiko larria izan zen, pobrezia eta desberdintasun sozialak areagotu egin ziren, eta haiekin batera alkoholismoa, suizidio kopurua eta beste. Bizi-itxaropena asko jaitsi zen denbora laburrean. Finlandian, aldiz, krisi ekonomikoa egon zen halaber, Sobietar Batasunari egindako esportazioak hango ekonomiaren zati garrantzitsua zirelako. Baina krisi hura leundu egin zen Finlandiako Gobernuak herritarrengan ohitura osasungarriak sustatu eta osasun sistema indartu zuelako. Osasungintza publikoak eta zerbitzu sozialek oso zeregin garrantzitsua dute krisi garaian. Gizartea hondatzen ari denean babes hori kentzen badugu gainera... Pentsa zer litzatekeen hau AEBetako osasun sistemarekin. ■